

## LB\_2\_Latin\_II\_Programazio\_Laburpena

Irakaslea | Ana Botello | Maila | LB 2 | ikasturtea | 20-21

### IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez- Presentzialaren Plana](#).

**Latina irakasgaiaren** xede nagusia da ikasleari latinaren eta haren kulturaren funtsezko alderdien ezagutzaren hastapena ematea, eta, era berean, nabarmentzea zer garrantzi izan duten, hizkuntza erromantzeen eta mendebaldeko kulturaren jatorri eta oinarri diren aldetik. Etapa honetan bilatzen da hizkuntza hau – aberastasuna eta egitura konplexuak ezaugarri dituena – sakonago ikas dadila.

Bigarren kurtso honetan iaz ikasitakoaren sakonketa egingen dugu. Birpasoa eginez gain gero eta konplikatuagoak diren egiturak eta testuak landuko ditugu.

Latindar literaturaren ikuspegi orokor bat ikusiko dugu, garrantzitsuenak diren genero meta autore landuko ditugularik.

Gaur egun erabiltzen diren esamolde batzuk ( latinismoak ) landuko ditugu ; izan ere gure hizkuntzetan maiz erabiltzen baitira.

### OINARRIZKO GAITASUNAK

### UNITATEAK

1) Hizkuntza komunikazioa.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologia oinarriko gaitasunak.										
3) Gaitasun digitala.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
4) Ikasten ikastea	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
5) Gaitasun sozial eta zibikoa.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
6) Ekimena eta ekintzailtza.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

### ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

Batxilergoa: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1>

### EDUKIAK / CONTENIDOS

Edukiak ebaluazioka horrela antolatuko ditugu:

**Iaz eman Ggbe gelditu denarekin hasiko gara : Izenordeak, esaldi pasiboa, infinitivo eta partizipioa.**

### 1. Ebaluazioa

5 deklinabideak (substantiboak). Adjektibo guztiak. Konparatzailea eta superlatiboa.

Aditz flexioa (erregularra eta irregularra).

Izenordeak: edutezkoak, erakusleak, erlatiboa, zehaztugabea, anaforikoa, enfatikoa eta zenbakiak.

Esaldi bakunak eta menpekoak.

Latineko menpeko juntagailu nagusiak.

Menpeko esaldiak. Erlatibozko esaldiak. Infinitibo eta partizipioen esaldiak. Latineko partizipioak.

Erromako antzerkia: komedia eta tragedia. Plauto

Latinismoak

### 2. Ebaluazioa

Menpeko esaldiak

Historiografia: ezaugarriak eta autoreak. Zesar eta Livio.

Erromako epika: ezaugarriak eta idazleak. Virgilio: bizitza eta obra.

Ovidio: bizitza eta obra. Ovidioren testuen analisia eta itzulpena.

Eutropio testuen analisia eta itzulpena.

Lexiko eta bilakaera fonetikoa.

Zesar eta Eutropioren testuen analisia eta itzulpena.

Latinismoak

### 3. Ebaluazioa

Erromako hizlaritza: sorrera, ezaugarriak, idazle eta obra nagusienak. Zizeron.

De bello Civili obraren zatien analisia eta itzulpena.

Erromako lirika: sorrera eta ezaugarri nagusiak.

Catulo eta Horazio: bizitza eta obra.

Beste autoreen itzulpenak.

Erromako literaturaren errepasso osoa.

Testuen analisia eta itzulpena. Lexikoa eta bilakaera fonetikoa.

## BATX CURRICULUMA

### UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA/ UNIDADES Y TEMPORALIZACIÓN

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
16	1.Unitatea	20	3.Unitatea	20	5.Unitatea
18	2.Unitatea	20	4.Unitatea	20	6.Unitatea
1	Azterketa	1	Azterketa		Azterketa
1	Globala	1	Globala		Globala

### METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK /METODOLOGÍA Y RECURSOS

Hizkuntza eta lexikoari dagozkion ariketak ikasleentzako maila egokitua duten testuetan oinarrituko dira.

- Gai kulturei buruz, ikasleek laburpenak egingo dituzte eta, ahal den neurrian, bideo eta

pelikulak ikusiko dira

- Gaur egun erabiltzen diren latin esamolde batzuk ikasiko dira
- Eskolaz kanpoko ekintzak: ahal baldin bada, antzerki lana ikustera joango gara.
- Testulibururik ez dago.
- Hiztegia: *Euskolatinus.latina-euskera hiztegia*. Batzuk. Denonartean.Berriozar.2014  
Beste materiala: Irakasleak ekarriko dituen fotokopiak, dokumentalak, bideoak, interneteko errekurtsoak eta abar.
- Covid 19-a dela eta egoera ez presentzialera joan behar badugu, metodologia online izango da :  
classroom, meet... baliabideak erabiliko direlarik.

## EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

**Lehenengo ebaluazioan:** froga azterketa testu baten analisisian eta itzulpenetan oinarrituta egongo da baina ,aurrean komenigarria da deklinabidea, morfologia eta aditzei buruz azterketa bat jartzea.

**Bigarren eta hirugarren ebaluazioan** testuaren analisisia eta itzulpena jartzeaz gain, literaturari buruzko galdera bat jarriko da, eta zibilizazio eta kultura eta etimologiari buruzko galdera bat egon daiteke. Morfologia, latinismoei edo etimologiari buruzko galdera bakoitzak azterketaren %10eko balorazioa izango du.

literatura galderak % 20 izango du. Gainerako balorazioa testuaren analisisia eta itzulpenak edukiko du eta balorazioa izango da selektibitate azterketan ematen dena (itulpena 5, analisisia 2) edo horren proportzioa

- .- Aditzen aldietan edo deklinabidean egindako akatsak agertzen direnean, 0,25puntuazioa kentzen da.
- .- Analisisian, itzulpenean egindako akatsak agertzen direnean, 0,25 puntu kenduko da akats bakoitzak.
- .- Zibilizazio, kultura, literatura eta etimologiari buruzko galderen balorazioa orokorra izango da.

Azterketa garrantzi handikoa da, ebaluaketa bakoitzean ikasitakoa erakusten dutelako ikasleek, %80ko nota izanik.

Azterketaren egitura , 2. Ebaluaziotik aurrera, Unibertsitatean sartzeko Hautaprobarena izango da, non testu baten itzulpenak, 5 puntu balio duen, testuaren zati baten analisi morfosintaktikoak 2 puntu balio dituen, literatura gaia 2 puntu balio duen eta latinismoari buruzko edo eboluzio fonetikoari buruzko galdera puntu bat balio duen.

Irakasleak ikasleek klasean eta batez ere etxean eginiko lana ere baloratuko du( %20 %75a entregatu behar

Ebaluazio bat suspendituz gero, ikasleak ebaluazio hori azterketa berezi edo lan osagarri baten bitartez errekueratu beharko du.

Ohiko eta ez-ohiko ebaluazioetako azterketetan, materia osoarekin joango dira ikasleak.

## ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

**Borobiltzea:**

**Ebaluazioko** nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

**Ikasturte bukaerako** nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

## GUTXIENEOAK

Ebaluazio bakoitzean egiten diren frogetan emandako materiari buruzko ariketa praktikoak eta teoria agertuko da.

Ebaluatzeko erabiliko ditugun azterketetan elementu hauek azalduko dira:

- Morfologia ariketak: deklinabideak, komunztadura egiten duten taldeak elkarrekin deklinatzea (izenak eta adjektiboak) Aditzak (aztertu eta jokatu)
- Testuaren azterketa: morfologia eta itzulpena.
- Zibilizazio eta kulturari buruzko galdera bat.
- Esaldi sinpleak itzuli erretrobersio bidez.

**Gutxieneoak** Estandar ebaluagarriekin bat egiten dute, ikasleak neurri egokian lortu behar dituenak.

### **ERREKUPERAZIO SISTEMA / SISTEMA DE RECUPERACIÓN**

Ebaluazio bat suspendituz gero, ikasleak ebaluazio hori azterketa bitartez errekuperatu beharko du. ·  
Ohiko nahiz ez ohiko ebaluazioetara materia osoarekin joango dira ikasleak.

Iruñean 2020ko iraila

